

Ordutegiak

Filmak

	Prezioa	Irau.	11/20	11/21	11/22	11/23
AKELARRE, Marearen kontra	3 €	85'	18:45			
KARMELE	3 €	114'	20:30			
UXINA	3 €	23'		19:30		
ENARAK	3 €	72'		20:00		
OLATUAK	3 €	78'			10:30	
FAISAIEN IRLA	3 €	100'			14:30	
ERREPLIKA	3 €	74'			17:00	
BAIGORRI 3056	3 €	8'			19:00	
SORGINA BANAIZ	3 €	69'			19:00	
ARGIZAGI, Zubiak adiskidetasunerantz	3 €	60'				10:00
LURDES IRIONDO, Ez gera alferrik pasako	3 €	72'				15:30
ZINEBILERA-ren Film Laburrak	3 €	86'				17:30
JONE, BATZUETAN	3 €	80'				19:15

Ekimen bereziak

ADUR LARREA-ren animazio tailerra - FabLabea	Urririk	120'			9:30	
Kontzertuak Ttattola Gaztetxean ALBA zine kontzertua, KE LEPO & FELIX BUFF, PANDA VALIUM	Urririk	-			21:30	
ARGIZAGI Haurrendako zine tailerra - Haritz Barne Zinema	Urririk	60'				10:00

Lekuak

- HARITZ BARNE ZINEMA

Haritz Barne karrika, 6
- TTATTOLA GAZTETXEA

Harana Parkinga
- FABLABEA

Francis Jammes karrika 16

Jateko eta edateko
zinemako ostatuan

Tokiak Erreserbatzeko

Web: Eihartzea elkarteko
Helloassotik

Haritz Barne zineman,
Zinegin denboran

Sar Hitz




Zinegin festibalaren 14. edizioa badator, azaroaren 20tik 23ra iraganen da. Eihartzea elkarteko pinpirinak, Hazparnen gairi aroski ibiltzeko fama dutenak, Eihartzetik aurren ere Haritz barne zinemara hegaldutako dira, euskarazko zinemagintzaren azken uztak harroturik. Aurren bildu dugun nektareak badu gustu eta airean dantzatzeko gogoia ere eman digu. Ondorioz, pantailan nahiz zuzenean, hainbat kantu eta musikaren oihartzunak ozen entzunaraziko dizkizuegu. Aitzindarienak, Lurdes Iriondo kantaria itzaltasuenarekin, Akelarre eta Enarak taldeena. Garaikideenak zuzenean agertuko dira, Ttattolarekin partaidetzan larunbat gauz gozatzeko dugun emanaldi berezian, zine-kontzertuaren ohidura Albaren sorkuntzak berpiztuko duelarik, eta, ondorengo, ikus-entzunezko erritmo bizirik ez da eskastuko Panda Valium berriarekin eta Ke lepo eta Felix Buffen emanaldi ohargarriarekin.

Nabarmendu nahi genuke zinemaldi horrek, hasieratik, zinetik eta zineaz ikasteko eta trukatzeko gunea izan nahi duela. Aurren, irudien sortzearekin interesa duten handi eta txikiak bi zine-tailerretan parte hartzen ahalko dute, larunbat eta igande goizez. Harro gara, Euskal Herriko euskarazko bi zinemaldietatik bat izanez, adin guzietako publikoari lau egunez euskarazko ikus-entzunezkoak eta giroa proposatzeaz. Harro programazioa askotarikoa izan dadin, euskal filmek azaltzen dituzten gaien aniztasunari eta gaurkotetasunari dagokionez, lehenik. Harro emazte zuzendariak ikusgarri egiteaz (Itziar Leemans, Sara Fantova, Lucia Ezker Recalde, Inge Mendioroz Ibañez), tokiko jendeak sortzen dituzten film xumeak erakutsi ahal izateaz, film aipatuenez gain. Aurtengo berrietasuna, larunbat eta igandez haurtzaindegi bat izanen dela zinemaren ondorengoan, aita-amak pantailaren aitzinean izanen diren bitartean, haurrak euskaraz jokoan egoteko gisan!

Euskarazko filmak ulertzea ez omen da hain errega. Hori jakinda, urtero ahal bezainbat filmen euskarazko azpidatziak gehitzeko ahaleginak egiten ditugu, euskara maila ez dadin hainbeste traba bat izan eta euskal azeri ugarien koloreetaz hobeki gozatzeko. Bestalde, usain bezala, zuzendariarekin solastatzeko parada izanen da, Haritz Barne zinegelako ttoero erosoetan jarriko edo zinemaren atariko gelan egonen den eguneroko ostaturan elkartuz, tripa jan-edan goxoz betetzeko denboran.


Eskerrak



Milesker urte guzian Haritz Barne zinema-gela kudeatzen duen Zabalki elkarteari, festibalari harrera egiteaz. Esker mila sustengua ekartzen diguten instituzioei, EKeri, Hazparneko Herriko Etxeari, Departamenduari, Euskal Elkargoari, Lekeitioko Zinebilerari festibalari baita urtero laguntzen gaituzten Hazparne inguruko enpresa pribatuak ere. Esker bereziak ere Ttattola gaztetxeko kideei, ekartzen diguten laguntzaz. Milesker denei, 2012tik, urtez urte, hegala zabaltzeko ahalak emateaz.

Zineginen pinpirinak

zinegin@gmail.com
<https://zinegin.eus>



Osteguna 11/20a



AKELARRE, marearen kontra

Euskarazko azpitituluekin

Zuzendaritza: Carlos Iglesias Serrano, Xabier Zabala Aguirrezabal

Akelarre musika taldea 70. hamarkadan sortu zen, taldekideak euskara hutsezko erreperitorioaren alde egiten lehenetarikoa izan ziren eta beren rock kantuak, ingelesezko taldeen euskarazko bertsioekin nahasten zituzten. Azken diskoa atera eta hogeitaz geroago, beren ibilbidearen kontaketa egiten digute.

18:45 - (85')

Prezioa: 3€



KARMELE

Zuzendaritza: Asier Altuna Iza

Zuzendariaren presentzian


Euskarazko azpitituluekin

1937. urtean gerlarenatik etxetik kanporatuak izan ondoren, Karmelek eta bere familiak ihes egiten dute, Ipar Euskal Herrira lehenik eta Parisera gero. Ihesaldian, Karmelek erbesteko euskal enbaxada kulturalaren proposamena jasotzen du, dantza eta musika ikusgarrien bidez gerlaren kontra borrokatzeko. Baina, Txominen ezagutza egitean, bere borrokak forma sekretuago bat hartuko du...

20:30 - (114')

Prezioa: 3€

Ostirala 11/21a



UXINA

Zuzendaritza: Lucia Ezker Recalde

Euskarazko azpitituluekin

1984eko otsaila. Kanpoan haizeak leihoa jotzen duen bitartean, Mauleko gela xume batean, Zaraitzuko espartingile talde bateko neskak eztabaidan ari dira. Gauzak gaizki doaz, batzuk ez dira bertan jarraitzeko prest. Ezin dute. Baina otsaila da, eta etxera itzultzeko, Nafarrera, Pirinioak zeharkatu behar dira. Bidaia arriskutsua da. Zenbat prest izanen lirateke halakorik egiteko?

19:30 - (23')

Prezioa: 3€



ENARAK

Zuzendaritza: Beñat Iturrioz

Zuzendariaren presentzian

Euskarazko azpitituluekin

1967an, diktadura frankista betean, askatasun egarri ziren seminarista batzuek Enarak taldea sortu zuten. Garaiko jendartean emakumeak psikodelia estiloak jotzen zituzten, euskara hutsean. Ehunka kontzertu eman ondoren, 1971an misterioz desagertu ziren, betiko. 50 urte berantago, kantariaren semea, Beñat, taldearen aztarnen xerka abiatuko da.

20:00 - (72')

Prezioa: 3€



ANIMAZIO TAILERRA

Stop Motion animazio tailer bat proposatu nahi dugu Adur Larrea ziburutar komikiegile eta animatzaileak emanik. Tailer hau hiru

fasetan iraganen da. Lehenik, Stop motion animazioaren oinarriak sinpleki esplikatu ditu. Ondotik, talde bakoitzak film hari sinple bat idatziko du eta hasiko da dekoratua instalatzen. Grabaketa eginez segituko da, hainbat teknika eta material erabiliz. Euskararen Urtaroak kariatara antolatua.

Animazioan gehienez 12 pertsonak parte hartzen ahaliko dute. Izena emateko, idatz helbide honetara: zinegin@gmail.com

09:30 - 12:30
URRIRIK
Lekua: FabLabea

OLATUAK

Zuzendaritza: Itziar Leemans
Zuzendariaren presentzia

Zazpi emaztek, gela batean, terapeuta batek gidaturik, gorputzak poliki mugimenduan jarri dituzte. Dantza terapiak aurrera egiten duen artean, iraganen jasan zituzten tortura fisiko eta psikologikoen lekukotasun humilgarriak emanen dituzte.

10:30 - (78')
Prezioa: 3€

FAISAIEN IRLA

Zuzendaritza: Asier Urbieta San Martín
Zuzendariaren presentzia

Faisaien uhartea munduko jakelidetzat txikiena da. Urtearen erdian Espainiako estatuari dagokio eta beste erdian estatu frantsesari. Laida eta Sambou, bertako bikote bat, irliaren aitzinean dabilta pasaietan. Bi pertsona ikusiko dituzte ibai igerian zeharkatzen, beste aldera heltzera saiatzeko. Egun batzuk geroago, hilotz bat agertuko da uhartearen subiranotasun-trukea egiten duten momentu berean. Nork hartuko du bere gain?

14:30 - (100')
Prezioa: 3€

ERREPLIKA

Zuzendaritza: Pello Gutiérrez Peñalba
Zuzendariaren presentzia
Euskarazko azpiztituluekin

1979an Zikuñagako Ama Birjina desagertu zen eta Hernaniko biztanleek irudi ikoniko bat galdu zuten. Zulo bat horma-hobian. Zuzendariaren aita, Juanmi Gutiérrez zinegilea, duela urte batzuk hil zen. Orain, denbora tarte bat pasa denean, Pello Gutierrez bere filmetara itzuli da memoria pertsonaleko ariketan. Irudien bitartez egiten du memoria. Edo, hobeki erranda, irudi ezaren bitartez. Ausnarketak Ama Birjinaren erreplikaren lanketarekin bat egiten du garaieko dokumentuek ezusteko errealitate bat azaltzen dutenean.

17:00 - (74')
Prezioa: 3€

BAIGORRI 3046

Zuzendaritza: Pette Ebzebarria

Baigorriko Jean Pujol Kolegioko 5. elebidunekin egindako film laburra. Baigorri 3046, Sorgina Banaiz proiektzioaren lehen partean emanen da.

19:00 - (8')
Prezioa: 3€

SORGINA BANAIZ

Zuzendaritza: Asisko Urmeneta
Zuzendariaren presentzia
Euskarazko azpiztituluekin

Nafarroako mendialdean gertatu zen. Duela 500 urte, bost sorgin exekutatu zituzten herriko plazan. Sekta sataniko bateko partaideak omen ziren, eta sute hark mende osoko jazarpenaren abiapuntua markatu zuen Euskal Herrian. Zer ezkutatzen zaigu ke beltz horren atzean?

19:00 - (69')
Prezioa: 3€

ALBA

Zine kontzertua

Mattin Olzomendi Peio Irigoien, Xalbat Borda, Padoa Irigoien, Arsalur Epher

1955ko dokumental batean oinarrituz, Alba taldeak kolonialismoaz gogoetatzera eraman nahi gaitu, soinu progresibo eta girotsuekin. Eszena bortitzak izan daitezke, publiko sensible batentzat egokiak ez direnak.

KE LEPO & FELIX BUFF

Alejo Orbegozo, Felix Buff

Ke Lepo Alejo Orbegozoren alter ego musikala da. Urteak daramatza sintetizadorearen eta musika elektronikoaren mundua aztertzen. Ke Lepo Izpi bere lehen disko luzea eramanen du agertokira, oraingoan, zuzeneko proposamen berri batekin: Felix Buff (Rüdiger, Willis Drummond, Joseba Irazoki...) bateria-jotzaile talentudunaren laguntza izan du diskoko kantuak ikuspegi indartsu eta dinamikoa baten bidez interpretatzeko, eta bateriari esker, konposizioen esperientzia biziago bat sortzeko.

PANDA VALIUM

Txomin Ugartemendi, Pierre Sanglat

Panda Valium taldearen sorkuntza berria! Txomin Ugartemendiak eta Pierre Sanglat-k musika paganoa, elektronikoa eta krautrocka elkartzen dituen soinu-mosaiko bat proposatuko digute.

21:30
URRIRIK



ARGIZAGI, Zubiak adiskidetasunerantz

Zuzendaritza: Marramiau sorkuntza taldea
Zuzendariaren presentzia

argi zubiak izenekoak. Planeta horietako bat Lur deitzen da. Momentu batean, lurarrak beste planetak bereganatzen entseatu ziren. Hau ikusita, beste planetetako biztanleak lurarren aurka jazarri ziren eta bertara bidaiatzeko ateak hetsiz. Baina, beste galaxia batetik datozen Ekai eta Nahik, argi zubi bat ireki eta Lur planetara bidaiatuko dute.

10:00 - (60')
Prezioa: 3€



ARGIZAGI Haurrendako zine tailerra

7 eta 9 urte arteko haurrei zuzendua. Animazio teknika bat deskubri ezazu, zure pertsonaia sortuz eta ARGIZAGI seriean agertzen den dekoratuetan mugiaraziz. ARGIZAGI proiektioaren ondotik eskainitako tailerra. Izena emateko, idatz helbide honetara: zinegin@gmail.com

11:00 - (60')
URRIRIK



LURDES IRIONDO, Ez gara alferrik pasako

Zuzendaritza: Inge Mendioroz Ibañez
Zuzendaria eta Idoia Garzes Aldazabal gidotariaren presentzia
Euskarazko azpiztituluekin

Garai bateko zuri-beltzeko argazkietan ixotzua gelditu den abeslari gaztea. Kapsulatua. Kuadro baten barruan harrapatua, haren ahotza diskoetan bezala. Ahatzi da, nonbait, ikuspuntua hautatzen dela. Ahatzi da, kantaria izateaz gain, euskal kulturaren transmisioan ezinbesteko erreferentia ere badela Lurdes Iriondo.

15:30 - (72')
Prezioa: 3€



LEKEITIOKO ZINEBILERA-ren Film Labor Sorta

Lekeitioko Zinebilera festibala aspaldi bidelaguna dugu. Zinegin festibala bezalaxe, euskarazko zinema hedatzea du helburu. Film labor sorta bat eskaintzen digute. Gora film laburrak! Gure sareak segi film laburren izenak deskubritzeko!



17:30 - (60')
Prezioa: 3€



JONE, BATZUETAN

Zuzendaritza: Sara Fantova
Euskarazko azpiztituluekin

Bilbo, agorrilean. Jone (20 urte) aitarekin eta Marta ahizpa ttipiarekin bizi da. Aitak lana utzi behar izan du bere parkinsonaren ondorioengatik. Aldi berean, Bilboko Aste Nagusiko jaiak hasten dira, eta Jone lehen aldiz maiteminduko da orduan. Uda horretan, Olgarekin -maite duen neskaekin- bizi duen hilezkortasun sentazioaren eta aitaren gaixotasunaren ondorioz, bakarrik gelditzeko beldurra haziko zaio.

19:15 - (80')
Prezioa: 3€

ERAKUSKETA

BAI ALA BAI

Camille Chopin argazkilaria erakusketa, Haritz Barne zineman ikusgai azaroaren 16tik 30ra.

Euskal eta queer identitateen arteko bidegurutzean, Albalili taldeko kideak argitan ezarri ditu Camille Chopinek argazki erakusketa honetan.



HAURREN XOKOA

Haritz Barne zinegelaren ondo-ondoan, haurren zaintzeko gune bat plantan ezarri dugu. Haurtzain profesional batek kudeatuko du, laguntzaile batzuekin. Gisa horretan, burusoak filmen ikustera joaten ahaliko dira larunbat eta igande arratsaldeetan.

Tenoreak:
Larunbata: 14:00 > 19:00
Igandea: 15:00 > 19:00

Informazio gehiago ukaiteko, helbide honetara idatz ezazu: zinegin@gmail.com